

BIDERATZAILEAK ERABATEKO KALITATEAN ETA KUDEAKETAREN BIKAINASUNEAN

1998tik 2007ra bitartean, Euskalitek "Erabateko Kalitatean/Kudeaketaren bikaintasunean Bideratzaileen Programa" kudeatu du, Euskadiko irabaz asmorik gabeko beste erakunde batzuekin elkarlanean (AENOR, ASLE, BIC Gipuzkoa Berrilan eta NoviaSalcedo Fundazioa). Programa horren helburu nagusia lizentziadun eta diplomadun gazteei lan munduan sartzeko laguntza eskaintzea izan da, Erabateko Kalitatean eta Kudeaketaren Bikaintasunean prestatuz eta erakunde horien laguntza eskatzen zuten erakundeetan praktika errealak burutuz.

2007an programa honen etorkizunari buruzko gogoeta egin genuen eta, emaitzak onak baziren ere (ikasleak eta erakundeak pozik zeuden, lan munduan sartze maila %80-%93 artekoa zen), bertan parte hartzen zutenen kopurua txikiagoa zen urterik urtera, eta, horrela, ikusi genuen Programa martxan jartzea bultzatu zuen zergati nagusiak jada ez zuela esanahi handirik, Euskalitek gizarteari egiten zion ekarpen gisa. Horrela bada, 2008tik aurrera, EUSKALITek ez du jada programa horren deialdi gehiagorik egingo. Gainera, Euskadin badaude helburu bera (prestakuntza Erabateko Kalitatean eta praktikak erakundeetan) duten programak burutzen dituzten zenbait erakunde, NoviaSalcedo Fundazioa eta Bic Gipuzkoa Berrilan, besteak beste.

Hala ere, EUSKALITen badago **Erabateko Kalitatean/Bikaintasunean Bideratzaileen Talde** bat. Programa barruko prestakuntza teorikoa zein praktikoa burutu duten lizentziadunek eta diplomadunek osaturiko lan poltsa da. Kasu askotan pertsona horiek esperientzia jaso dute Kudeaketaren zenbait alorretan. Zure ustez zure erakundeak ezaugarri horiek dituen profesional baten laguntza behar badu, edo Erabateko Kalitatean/Bikaintasunean Bideratzaile edo teknikari bat zure taldean sartzea interesgarri iruditzen bazaizu, bidali mezu elektronikoa bat jdeleon@euskalit.net helbidera, "Club de Facilitadores" edo "Bideratzaileen taldea" jarritz. Bertan lanpostuaren deskribapena, lana egin behar duten pertsonak bete beharrekoak eta CV-ak jaso behar dituen pertsonaren harremanetarako datuak jarri beharko dituzu. Erakundea bera izango da aukeraketa prozesua aurrera eramatearen arduraduna. Euskalit arduratuko da Bideratzaileen Taldean (Bideratzaileen poltsan) lanpostuaren ezaugarriak betetzen dituzten pertsonak bilatzeaz, interesatuak erakundeekin harremanetan jar daitezzen.